



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (Esp.: 03/2011, BIZKAIKO PROKURADOREAK)

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Bilbao, 2014ko uztailaren 17a

AURKIBIDEA

I. AURREKARIAK.....	2
II. FROGATUTAKO GERTAERAK.....	5
III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK	6
1. Prokuradore-lanbidea	6
2. Jakinarazpen Aretoak	7
3. Amaiera Konbentzionalaren lege-oinarria.....	8
4. Elkargoak aurkeztutako konpromisoak.....	10
IV. EBATZI DU	11
Eranskina	12

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean LEK), lehenago adierazi den osaerarekin, Elkargoak egindako ustezko lehiaren praktika murriztaileen ondorioz Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak eskatuta Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargoaren (aurrerantzean "Elkargoa") aurka hasitako Zehapen Espedientean honako Ebazpen hau eman du.



I. AURREKARIAK

1. 2011ko otsailaren 7an, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak igorritako idazki bat iritsi zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (LDEZ) erregistrora. Idazki horren bidez, Elkargoak Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (LDL) debekatutako ustezko jokabideak erakutsi zituela jakinarazi zen. Jokabide horiek Elkargoaren kuotak ezartzeko prozedurari lotuta zeuden.

2. 2011ko maiatzaren 26an LDEZk **informazio erresebatuko** izapide bat hasi zuen, LDLren 49.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, zehapen-espeditente bati hasiera ematea bidezkoa ote zen erabakitzeko.

3. 2011ko azaroaren 14an, LDEZk LDEAri proposatu zion zehapen-espeditenteari hasiera ez ematea, LDLren aginduekiko arau-hauste zantzurik ez dagoelako.

4. LDEA eta LDEZ 2012ko uztailaren 17an iraungi ziren, eta une horretan Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) bere jarduerari hasiera eman zien, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.

5. 2012ko azaroaren 27an, Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK) Ebazpena eman zuen, espeditentea ez hasteko Ebazpen Proposamena ezestea erabakiz, eta, ondorioz, LEAko Ikerketa Zuzendaritzari (IZ) eskatu zion prozeduraren xede diren gertakarien ikerketa osatzeko.

6. 2014ko urtarrilaren 20an IZk erabaki zuen Elkargoaren aurkako zehapen-espeditenteari **hasiera ematea**, LDLren 49.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, goian azaldu diren gertakarietan lehiaren praktika murriztaileen zantzu arrazionalak ikusten dituelako. Interesatuei 2014ko urtarrilaren 23an jakinarazi zitzaizkien espeditenteari hasiera eman zitzaiola.

7. LDLren aurkako ustezko **portaera** zera izango litzateke, jakinarazpen-aretoak eta kopia-lekualdaketa erabiltzen dituen prokuradore ororentzat nahitaez bete beharreko finantzaketa-sistema bat —Esku-hartzeagatik Ekarpina (EE) deitutakoa— ezartzea. Elkargoak ezarritako EE hori prozedura motaren arabera aldatu egiten da, baina prokuradore bakoitzak benetan egiten dituen esku-hartzeen kopuruaren arabera ez du bereizketarik egiten. Ekarpinen zenbatekoa zehazteko, Elkargoak, gainera, jakinarazpen-



aretoaren berezko jarduerari zuzenean lotuta ez dauden gastuak barnean hartuko lituzke.

8. Espediente honetan honako hauek dira interesdunak:

- Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargoa
- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala
- Prokuradorearen Defentsarako Elkarte
- I.R.E.

9. 2014ko otsailaren 4an LEAren Erregistro Orokorrean idazki bat sartu zen, Elkargoaren legezko ordezkartzak sinatua. Idazki horren bitartez, Elkargoak eskatu zuen zehazpen-prozeduraren **amaiera konbentzionala** egiteko jarduerak has zitezen erabakitzea.

Eskaera hori 2014ko otsailaren 10eko Probidentziaren bitartez onartu zen. Gainera, zehazpen-prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa bertan behera utzi zen amaiera konbentzionala bukatu arte.

10. 2014ko ekainaren 25ean Elkargoak bere **Konpromiso Proposamena** aurkeztu du, zeina jarraian eta ebazpen honen Eranskin gisa zerrendatzen den:

Lehena.- Prokuradore bakoitzak prozeduretan egiten duen jardunaren ondorioz jakinarazpen-zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu behar duen Esku-hartzeagatik Ekarpina ezartzea honako metodologia honen arabera:

Prozedura judicial bakoitzaren araberrako jardunagatik ordainketa-sistema bat ezartzea erabaki da, horretarako normalki sortzen dituen jakinarazpenen bolumena kontuan izanik, eta horretarako honako sailkapen hau egitea beharrezkoa da:

Lehen Auzialdia eta Administrazioarekiko Auzia

Ahazkoa

Konkurtsuak

Adiskidetzeta, Exhortoa, Monitorioa, Soziala, Apelazioa eta Penala.

Prozedura mota horien bereizketa egin da prokuradoreen eskubide-arantzelean oinarrituz (1373/2013 Errege dekretua, azaroaren 7koa), zeinak bereizketa bera egiten duen, Prokuradorearen minuta kobratzeko hainbat tarte kontuan izanik, prozedura mota bakoitzak dakarren lanaren arabera, eta horrela, prozedura bakoitzeko kostua kalkulatzeko, Arantzela bezala, honako hau hartzen dugu kontuan:

Monitorioa, Adiskidetzeta, Exhortoa, Soziala, Apelazioa, Penala: X

Ahazkoa: 2X

Lehen Auzialdia, Administrazioarekiko Auzia: 3x

Konkurtsua: 6x



"X" prozedura-kostu hori gauzatu ahal izateko horietako bakoitzak guztira sortzen dituen Jakinarazpenen kopurua jakin beharko genuke (kalkulua sinplifikatzeko ez ditugu kontuan izango ofiziozko txandako gaiak, ezta jakinarazpenen Aretoaren bitartez ere egiten diren paperezko kopien lekualdaketak, horiek kalkulatzeko Prokuradore Jakinarazpenak kalkulatzeko bezain zaila izango litzatekeelako).

Horretarako, zenbaketa estatistiko bat egin da, konplexutasun handiagoko edo txikiagoko hainbat Monitorio hautatuz, Jakinarazpenen batez besteko bat lortzeko; 4 eta 10 jakinarazpen bitartean daude, eta horrek dakar batez bestekoa gutxi gorabehera 7 izatea.

Datu estatistiko hauekin, X izendatu dugun Monitorioaren prezioa honako hau izango litzateke: $7 \times 0.65^1 = 4,5$, eta beraz, Prokuradoreen eskubide-arantzela finkatzen duen Errege Dekretuaren arabera estrapolatuz, Prokuradore bakoitzak lehen egitaritzean jakinarazpen-zerbitzua erabiltzeagatik Esku-hartzeagatik Ekarpen gisa ordaindu beharreko kopuruak honako hauek dira:

Lehen Auzialdia eta Administrazioarekiko Auzia: 13,5 €

Adiskidetzeta, Exhortoa, Monitorioa, Soziala, Apelazioa eta Penala: 4,5 €

Ahozkoa: 9 €

Konkurtsua: 27 €

Bigarrena.- Jakinarazpenen elkargo-zerbitzua erabiltzeagatik Esku-hartzeagatik Ekarpena ezartzeko sistema berria onartzeko aurkeztea Elkargoaren Batzar Orokorrari, LEAk dagokion Ebazpena ematen duenetik zenbatzen hasi eta 2 hilabeteko epean.

Hirugarrena.- Urtero, Elkargoaren Batzar Orokorrak, Gobernu Batzordeak egindako proposamenez, jakinarazpen-zerbitzua erabiltzeagatik Esku-hartzeagatik Ekarpenaren zenbatekoa eguneratu ahal izango du lehen konpromisoan ezarritako metodologiaren arabera, eta beharrezkoa izanez gero, eta alde aurretik dagokion azterlana egin ondoren, prozeduren eskalak aldatu ahal izango ditu, jakinarazpen-zerbitzuaren autosufizientzia bermatzeko, sistemaren gastuen eta sarreraren bilakaera kontuan izanik, eta justifikazioan azalduko jarraibideak betez. Horretarako, berrikuspen horiek, onartuak izan baino lehen, Lehiaren Euskal Agintaritzari komunikatuko zaizkio alde aurretik, jakinarazpen judizialen zerbitzu telematikoaren inplementatzen ez den bitartean.

Laugarrena.- Jakinarazpenen elkargo-zerbitzua erabiltzeagatik Esku-hartzeagatik Ekarpena zehazteko araubide berria Batzar Orokorrak onartu eta bi hilabeteko epean aplikatzea, elkargoko finantzaketa-araubidean sartutako aldaketetara egokitu egin behar dela kontuan izanik.

¹ "Jakinarazpen-zerbitzuaren guztizko kostua zati jakinarazpenen kopurua izango litzateke jakinarazpen bakoitzaren kostua kalkulatzeko parametro egokia, eta sistema horri jarraituz Prokuradore bakoitzari jaso dituen jakinarazpenen kopuru partikularren arabera fakturatu beharko litzaioke, eta kasu horretan jakinarazpen bakoitzeko honako kostu hau emango luke: $(160.956/247.921) = 0,65\text{€}$ " (Konpromiso Proposamena: "Zioen Azalpena. Justifikazioa", 7. or. 2. paragrafoa).



Bosgarrena.- Batzar Orokorren erabakia elkargoaren webgunean argitaratzea eta zirkular baten bitartez elkargokideei jakinaraztea; zirkularrean, esku-hartzegatiko ekarpena kalkulatzeko metodoa eta Lehiaren Euskal Kontseiluak ematen duen Amaiera Konbentzionalaren Ebazpenaren testua osorik adierazi beharko dira.

Seigarrena.- Hartutako konpromisoak egikaritu direla egiaztatzen duen dokumentazioa Lehiaren Euskal Agintaritzara lekualdatzea, konpromisoak bete direla egiazta dezan.

11. 2014ko ekainaren 26an konpromiso-proposamena LEKra bidali zen jakinaren gainean geratzeko, baita interesdun guztiei ere, komenigarritzat jotzen zituzten alegazioak egiteko, eta alegazioak 2014ko uztailaren 2an eta 2014ko uztailaren 16an aurkeztu ziren.

12. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere alegazioetan adierazten du aurkeztutako konpromisoek modu eraginkorrean eta argi eta garbi konpontzen dituztela aurkitu diren lehia-arazoak.

13. I.R.E. jaunak, bere izenean eta Prokuradorearen Defentsarako Elkartearen ordezkartzan, adierazten du LEAk konpromiso-proposamena ezetsi egin behar duela, Elkargolari eskatuz bertan "izena emanda ez dauden" prokuradoreei inolako kopururik ez kobratzea eskatuz, edo, subsidiarioki, Jakinarazpenen Zerbitzuagatiko kobrantza/ordainketa Prokuradore bakoitzak egiten duen erabilera efektiboari lotuta egoteko konpromisoa eskatzea, horrela, "izena emanda ez dauden" prokuradoreei jakinarazpen-egintza bakoitzeko 0,06 euro kobratuz.

14. 2014ko uztailaren 16an IZk LEKra bidali zuen Amaiera Konbentzionalako Erabaki Proposamena zehapen-espedientearekin batera.

Bertan, IZk uste du Elkargoak formulatutako konpromisoek aurkitu diren lehia-arazoak konpontzen dituztela, interes publikoa behar bezala bermatuta geratuz.

Horregatik LEKri proposatzen dio aurkeztu diren konpromisoak onartzen dituen Ebazpena ematea eta zehapen-espedienteari amaiera ematea amaiera konbentzionalaren bitartez.

15. LEKk, 2014ko uztailaren 17an egindako bilkuran, espediente honi buruz eztabaidatu eta epaia eman zuen.

II. FROGATUTAKO GERTAERAK

16. Elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa eta bere xedeak betetzeko erabateko gaitasuna dituena.



Helbide profesional bakarria edo nagusia Bizkaian ezarrita duten prokuradoreek osatzen dute, baita beste lurralde-barrutiren batean helbidea izanik elkargo horretan sartzea eskatu dutenek.

17. Bere Batzar Orokorrak 2010eko uztailaren 22an hartu zuen erabaki bidez, Elkargoak bere finantzaketa-sistema aldatu zuen eta jakinarazpen-aretoak eta kopia-lekualdaketa erabiltzen dituen prokuradore ororentzat nahitaez bete beharreko Esku-hartzeagatiko Ekarpena (EE) ezarri zuen.

18. Elkargoan prozedura bakoitzerako ezarritako EEak honako hauek dira:

- Lehen Auzialdia, Administrazioarekiko Auzia: 15 €
- Konkurtsoak: 50 €
- Adiskidetzea, Exhortoa, Monitorioa, Soziala, Apelazioa eta Penala: 5 €

Elkargoak onartu du EEetan Jakinarazpen-aretoaren berezkoak ez diren beste gastu batzuk ere barnean hartzen direla.

19. Elkargoak egiaztatu du prozedura bakoitzean egiten diren jakinarazpen-egintzen kopuruaren zenbaketa zehatza egitea ahalbidetzen duen izapidetze judizialeko informatika-sistematik ez dagoela ezarrita EAEn.

Aukera hori posible ez den bitartean, Elkargoak EEren zenbatekoa prozeduraren arabera ezartzeko sistema bat proposatzen du, prozedura mota bakoitzaren arabera jakinarazpenen batez bestekoak abiapuntutzat hartzen dituen formula matematiko batean oinarrituz.

Formula horrek Jakinarazpen Aretoari zuzenean lotutako gastuak bakarrik hartzen ditu kontuan.

III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Prokuradore-lanbidea

20. Auzitegietako Prokuradore-lanbidearen eginkizun nagusia edozein prozedura motatan parte direnen ordezkaritza teknikoa da.

Prokuradoreen eginkizuna da, era berean, lege prozesalek esleitzen dizkieten funtzio eta eskumen guztiak betetzea justiziaren administrazio hoberako, prozesuak zuzen substantziazteko eta epaitegiek eta auzitegiek ematen dituzten epaiak eta gainerako ebazpenak efikaziaz betearazteko. Eskumen



horiek zuzenean edo organo jurisdikzionalaren eskuordetzan hartu ahal izango ditu bere gain, aplikatzekoa den legeriaren arabera².

21. Auzitegietako prokuradore-lanbidea, **nahitaez kolegiatu beharreko** lanbidea da.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 30.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lanbide kolegiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea bidezko den legeak hala ezartzen duenean. Horrenbestez, elkargo bateko kide izan beharra lege mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitza³.

Hala eta guztiz ere, kolegiatzea nahitaezkoa den lanbideak Legez arautzen ez diren bitartean —eta hainbat lege zerbitzu-jardueretarako sarbide librea izateari eta zerbitzu horiek erabiltzeari buruzko Legea egokitzeko abenduaren 22ko 25/2009 Legearen laugarren Xedapen Iragankorraren arabera— indarrean jartzen den egunean indarrean dauden nahitaezko kolegioak kontsolidatzen dira. Horregatik, modu iragankorrean bada ere, elkargo bateko kide izatea beharrezkoa den egoerak mantendu dira, arauan ezarrita ez egon arren, eta, beraz, maila egokiko arau baten bidez ezarritakoak ez izan arren⁴.

Aztergai dugun kasuan, elkargo bateko kide izateko betebeharra abenduaren 5eko 1281/2002 Errege Dekretu bidez onartutako Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorren 10. artikuluan eta Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargoko Estatutuetan (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko urriaren 10eko Agindu bidez onartuak) dago jasota⁵.

2. Jakinarazpen Aretoak

22. Prokuradoreekin egiten diren komunikazio-egintzak auzitegiaren egoitzan edo Prokuradoreen Elkargoak antolatutako harrerarako zerbitzu komunean

² 1281/2002 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa, Espainiako Prokuradoreen Estatutu Orokorra onartzen duena, 305. zk. BOE, 2002ko abenduaren 21ekoa.

³ Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea, 1997ko abenduaren 11ko 237. zk. EHAA.

⁴ 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, hainbat lege zerbitzu-jardueretarako sarbide librea izateari eta zerbitzu horiek erabiltzeari buruzko Legea egokitzekoa, 2009ko abenduaren 23ko 308. zk. BOE.

⁵ Agindua, 2008ko urriaren 10ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoaren Estatutuak onartzeko dena, 2008ko abenduaren 5eko 2345. zk. EHAA.



egiten dira. Zerbitzu horren barne-erregimena Prokuradoreen Elkargoaren eskumenekoa da, legearen arabera⁶.

23. Jakinarazpenak jasotzeko zerbitzu komunari SERCYN (Servicio de Recepción de Copias y Notificaciones de los juzgados y Tribunales) deritzo, edo modu arruntagoan Jakinarazpenen Aretoa, eta kopiak lekualdatzeaz ere arduratzen da⁷.

Bere zereginak honako jardun hauetan zehazten dira: kausak jaso eta entregatzea; jakinarazpenak jasotzea eta entregatzea Epaitegietan; idazkiak lekualdatzea; jakinarazpen telematikoak jasotzea: zerbitzuaren eta zerbitzuari atxikitako langileen mantentzea; epean sinatu gabeko jakinarazpenak kontrolatu eta jasotzea; prokuradore bakoitzari jakinarazpenak bere kutxatilan uztea.

24. Prokuradoreak jakinarazpenak egiten diren Aretoetara joan behar du nahitaez, aurreko paragrafoan adierazi diren jarduerak modu telematikoan egiten ez diren bitartean⁸.

25. Bizkaian Elkargoak 6 Jakinarazpen Areto kudeatzen ditu, beste hainbeste barruti judizialean kokatuta daudenak: Balmaseda, Barakaldo, Bilbao, Durango, Gernika eta Getxo. Areto horiek antzeko funtzionamendua dute, baina epaitegi bakoitzaren ezaugarrietara eta lan kopurura egokitua.

3. Amaiera Konbentzionalaren lege-oinarria

26. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 52. artikulua ezartzen duenez, Lehiaren Batzorde Nazionalaren (LBN) Kontseiluak —egungo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN)—, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek espedientearen xede diren jokabideetatik eratorritako **lehiaren gaineko eraginak konpontzen dituzten konpromisoak** proposatzen dituztenean eta **interes publikoa behar beste bermatzen bada**.

Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura

⁶ 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilari buruzkoa, 2000ko urtarrilaren 8ko 7. zk. BOE (aurrerantzean PZL), 154. artikulua.

⁷ Prozedura Zibilari buruzko Legearen 276. artikulua.

⁸ Prozedura Zibilari buruzko Legearen 26.2.9 artikulua.



ezin izango da artikulua honetan zehazten den moduan amaitu, LDLren 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.

Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aipatu 52. artikulua garatuz, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onartutako Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 39. artikulua ezartzen du Ikerketa Zuzendaritzak, proposatutako txostena aurkeztu aurreko edozein unetan eta debekatutako jokabideak izan dituztenek proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura bat itunduta amaitzeko jardunen hasiera erabaki ahal izango duela. Itundutako amaiera hasteari buruzko erabaki hori interesdunei jakinaraziko zaie. Halaber, prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa itundutako amaierara arte etenda geratu den adieraziko zaie.

Ustezko arau-hausleek Ikerketa Zuzendaritzari aurkeztuko diote konpromiso-proposamena, Zuzendaritza horrek amaiera konbentzionalaren hasierari buruzko erabakian finkatzen duen epean. Epe hori, edonola ere, hiru hilabetekoa izango da gehienez. Proposamen hori Kontseiluari eta interesdunei helaraziko zaie, jakinaren ganean gera daitezen eta bidezkotzat jotzen dituzten alegazio guztiak egin ahal izan ditzaten.

Ondoren, Ikerketa Zuzendaritzak amaiera konbentzionalaren proposamena aurkeztuko dio Kontseiluari, proposamena hartu eta prozedurari amaiera emango dion ebazpenean txerta dezan. Amaiera konbentzionalaren proposamena jaso ondoren, Kontseiluak aukera izango du:

- a) Zehapen-espeditentea amaiera konbentzional bidez ebazteko, aurkeztutako konpromisoak egokitzat hartuta.
- b) Aurkeztutako konpromisoek espeditentearen xede diren jokabideek lehiari izandako ondorioak behar bezala konpontzen ez dituztela, edota interes publikoa behar bezala bermatzen ez dutela ebazteko. Kasu horretan, epe bat eman ahal izango du, ustezko arau-hausleek Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari ikusitako arazoak konponduko dituzten konpromiso berriak aurkez diezazkiten. Epe hori igaro ondoren ustezko arau-hausleek konpromiso berririk aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak zehapen-prozedurarekin jarraitzeko eskatuko dio Ikerketa Zuzendaritzari.

27. Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean. Horregatik Lehiaren Euskal Kontseiluak Amaiera Konbentzionala erabakitzeko eskumena du.



28. Lehiaren Defentsarako Legeak ez du eskatzen prozedura bati amaiera konbentzionalaren bidez amaiera ematen dion prozedura batek espedienteko interesdun guztien adostasuna izatea.

Horrela, zioen azalpenak, amaiera konbentzionalari buruzko paragrafoan, honako hau dio:

Arlo horretan, aipatu beharrekoa da amaiera konbentzionalaren erregimena malgutu egin dela, eta ondorengoetan zentratzen dela: ustezko arau-hausleak proposatu beharreko konpromisoetan, lkerketa Zuzendaritzarekiko negoziazioan, eta Kontseiluari aurkeztu beharreko ebazpen-proposamenean; ebazpen-proposamena beti proposamen-txostena baino lehen aurkeztu beharko da, eta espedientean interesatuak diren gainontzekoen adostasunik gabe ere onartzeko aukera egongo da.

4. Elkargoak aurkeztutako konpromisoak

29. IZk LEK honi Amaiera Konbentzionalaren proposamena bidali dio 03/2011, BIZKAIKO PROKURADOREAK zehapen-espedienteari dagokionez. Bertan, IZk uste du Elkargoak formulatutako konpromisoek aurkitu diren lehia-arazoak konpontzen dituztela, interes publikoa behar bezala bermatuta geratuz. Horregatik LEKri proposatzen dio aurkeztu diren konpromisoak onartzen dituen Ebazpena ematea eta zehapen-espedienteari amaiera ematea amaiera konbentzionalaren bitartez.

LEK bat dator iritzi horrekin, uste baitu zehapen-prozeduraren amaiera konbentzionalerako proposatutako konpromisoen edukia egiaztatu ziren lehiaren murrizketak gainditzeko gai dela, interes publikoa behar beste bermatuta geratuz.

Deskribatutako jokabideak lehia-arazoak sortzen ditu jakinarazpen-aretoak eta kopia-lekualdaketa erabiltzen dituen prokuradore ororentzat nahitaez bete beharreko finantzaketa-sistema bat —Esku-hartzeagatiko Ekarpena (EE) deitutakoa— ezartzen duelako. EE hori prozedura motaren arabera aldatu egiten da, baina prokuradore bakoitzak benetan egiten dituen esku-hartzeen kopuruaren arabera ez du bereizketarik egiten. Gainera hori kalkulatzeko Jakinarazpen Aretoaren berezko jarduerarenak ez diren gastuak hartzen dira kontuan.

Aurkeztutako konpromisoek dakarte EE kalkulatzeko Jakinarazpen Aretoak sortzen dituen langile gastuak eta ustiapen-gastuak bakarrik kontuan hartzea. Gainera, prozedura bakoitzeko jakinarazpenen zenbaketa ezartzea ezinezkoa den bitartean, zenbateko hori justifikatzen dutela uste daitekeen jakinarazpenen batez bestekoetan oinarritutako metodologia bat ezartzen du.

Horrek gardentasuna sortzen du hurrengo berrikuspenetarako, eta aurkitutako lehia-arazoak argi eta garbi konpontzen ditu.



Gainera, hori betetzen dela eta konpromisoak eraginkorrak direla zaintzea bideragarria eta efikaza da.

30. I.R.E.ren alegazioari dagokionez, zeinaren indarrez EEren zenbatekoa ez litzaiekeen kobratu behar Bizkaiko Elkargoan izena emanda ez dauden prokuradoreei, ondorioztatu behar da jokabide horrek justifikatu gabeko tratamendu diskriminatzailea eragingo lukeela, eta beraz onartu egin daiteke.

31. Ebazpen honen eta berari lotutako konpromiso erantsien **publizitatea** jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta gehienez bi hilabeteko epearen barruan egin behar da. Argitalpenak gutxienez ere hamabi hilabetez egon beharko du ipinita.

Batetik, Elkargoak bere kideetako bakoitzari modu indibidualizatuan jakinarazi beharko dio ebazpen honen edukia, baita ebazpenari lotutako konpromisoen edukia ere.

Bestetik, Elkargoak bere webgunean (gaur egun <http://www.procuradoresvizcaya.com/>) ikusgai dagoen toki batean argitaratu beharko du ebazpen honen edukia, baita ebazpenari lotutako konpromisoen edukia ere.

32. Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 39.7 artikuluari jarraiki, amaiera konbentzionaleko ebazpen batean bildutako konpromisoak eta betebeharrak **ez betetzea** arau-hauste oso larritzat hartuko da, Lehiaren Defentsarako Legearen 64.4.c artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, behartzeko isunak ezarri eta, hala badagokio, zehapen-espeditente bat ireki ahal izango da Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1., 2. edo 3. artikulua urratzeagatik.

LEK honek, goian azaldutakoa kontuan izanik,

IV. EBATZI DU

LEHENA.- "Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargoa zehapen-prozeduraren" amaiera konbentzionala erabakitzea izaera loteslearekin, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, prozeduren araberrako jakinarazpenen zenbaketa eta ondorioz jakinarazpen bakoitzarengatik kobratzea ezinezkoa den bitartean.

Horretarako, ebazpen honen Eranskinean bildu diren Elkargoak proposatutako konpromisoak kontuan izango dira.



BIGARRENA.- Elkargoak ebazpen honen Eranskineko Konpromiso Proposamenean bildutako betebeharrak bete beharko dituela erabakitzea, amaiera konbentzionalari buruzko erabakia behar bezala beteko dela ziurtatzeko.

HIRUGARRENA.- Ikerketa Zuzendaritzari amaiera konbentzionalari buruzko erabakia eta, beraz, lortutako konpromisoak eta ezarritako betebeharrak zaintzeko ardura ematea.

Jakinaraz bekio Ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargoari eta gainerako interesdunei, eta adierazi behar zaie Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, aipatu jakinarazpenetik hasi eta bi hilabeteko epean.

LEHENDAKARIA

MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA

IBON ALVAREZ CASADO

KIDEA

NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KIDEA

RAFAEL ITURRIAGA NIEVA

Eranskina

ELKARGOAREN KONPROMISOAK

Lehena.- Prokuradore bakoitzak prozeduretan egiten duen jardunaren ondorioz jakinarazpen-zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu behar duen Esku-hartzeagatiko Ekarpena ezartzea honako metodologia honen arabera:

Prozedura judicial bakoitzaren araberrako jardunagatiko ordainketa-sistema bat ezartzea erabaki da, horretarako normalki sortzen dituen jakinarazpenen bolumena kontuan izanik, eta horretako honako sailkapen hau egitea beharrezkoa da:

Lehen Auzialdia eta Administrazioarekiko Auzia



Ahokoa

Lehiaketak

Adiskidetzeta, Exhortoa, Monitorioa, Soziala, Apelazioa eta Penala.

Prozedura mota horien bereizketa egin da prokuradoreen eskubide-arantzelean oinarrituz (1373/2013 Errege dekretua, azaroaren 7koa), zeinak bereizketa bera egiten duen, Prokuradorearen minuta kobratzeko hainbat tarte kontuan izanik, prozedura mota bakoitzak dakarren lanaren arabera, eta horrela, prozedura bakoitzeko kostua kalkulatzeko, Arantzela bezala, honako hau hartzen dugu kontuan:

Monitorioa, Adiskidetzeta, Exhortoa, Soziala, Apelazioa, Penala: X

Ahokoa: 2X

Lehen Auzialdia, Administrazioarekiko Auzia: 3X

Konkurtoa: 6x

"X" prozedura-kostu hori gauzatu ahal izateko horietako bakoitzak guztira sortzen dituen Jakinarazpenen kopurua jakin beharko genuke (kalkulua sinplifikatzeko ez ditugu kontuan izango ofiziozko txandako gaiak, ezta jakinarazpenen Aretoaren bitartez ere egiten diren paperezko kopien lekualdaketak, horiek kalkulatzeta Prokuradore Jakinarazpenak kalkulatzeta bezain zaila izango litzatekeelako).

Horretarako, zenbaketa estatistiko bat egin da, konplexutasun handiagoko edo txikiagoko hainbat Monitorio hautatuz, Jakinarazpenen batez besteko bat lortzeko; 4 eta 10 jakinarazpen bitartean daude, eta horrek dakar batez bestekoa gutxi gorabehera 7 izatea.

Datu estatistiko hauekin, X izendatu dugun Monitorioaren prezioa honako hau izango litzateke: $7 \times 0.65 = 4,5$, eta beraz, Prokuradoreen eskubide-arantzela finkatzen duen Errege Dekretuaren arabera estrapolatuz, Prokuradore bakoitzak lehen egikaritzean jakinarazpen-zerbitzua erabiltzeagatik Esku-hartzeagatiko Ekarpene gisa ordaindu beharreko kopuruak honako hauek dira:

Lehen Auzialdia, Administrazioarekiko Auzia: 13,5 €

Adiskidetzeta, Exhortoa, Monitorioa, Soziala, Apelazioa eta Penala: 4,5 €

Ahokoa: 9 €

Lehiaketa: 27 €

Bigarrena.- Jakinarazpenen elkargo-zerbitzua erabiltzeagatik Esku-hartzeagatiko Ekarpene ezartzeko sistema berria onartzeko aurkeztea Elkargoaren Batzar Orokorrari, LEAk dagokion Ebazpena ematen duenetik zenbatzen hasi eta 2 hilabeteko epean.



Hirugarrena.- Urtero, Elkargoaren Batzar Orokorrak, Gobernu Batzordeak egindako proposamenez, jakinarazpen-zerbitzua erabiltzeagatiko Esku-hartzeagatiko Ekarpeneren zenbatekoa eguneratu ahal izango du lehen konpromisoan ezarritako metodologiaren arabera, eta beharrezkoa izanez gero, eta aldez aurretik dagokion azterlana egin ondoren, prozeduren eskalak aldatu ahal izango ditu, jakinarazpen-zerbitzuaren autosufizientzia bermatzeko, sistemaren gastuen eta sarreraren bilakaera kontuan izanik, eta justifikazioan azaldutako jarraibideak betez. Horretarako, berrikuspen horiek, onartuak izan baino lehen, Lehiaren Euskal Agintaritzari komunikatuko zaizkio aldez aurretik, jakinarazpen judizialen zerbitzu telematikoa inplementatzen ez den bitartean.

Laugarrena.- Jakinarazpenen elkargo-zerbitzua erabiltzeagatiko Esku-hartzeagatiko Ekarpena zehazteko araubide berria Batzar Orokorrak onartu eta bi hilabeteko epean aplikatzea, elkargoko finantzaketa-araubidean sartutako aldaketetara egokitu egin behar dela kontuan izanik.

Bosgarrena.- Batzar Orokorraren erabakia elkargoaren webgunean argitaratzea eta zirkular baten bitartez elkargokideei jakinaraztea; zirkularrean, esku-hartzeagatiko ekarpena kalkulatzeko metodoa eta Lehiaren Euskal Kontseiluak ematen duen Amaiera Konbentzionalaren Ebazpenaren testua osorik adierazi beharko dira.

Seigarrena.- Hartutako konpromisoak egikaritu direla egiaztatzen duen dokumentazioa Lehiaren Euskal Agintaritzara lekualdatzea, konpromisoak bete direla egiazta dezan.